



## **Mungiako Legarda eskola publikoak 'LA DICTÉE DU TOUR' hartu du**

- **Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak eta Ager Izagirre Mungiako alkateak Christian Prudhomme hartu dute Mungiako Legarda ikastetxe publikoan, Tourra eta txirrindularitza ikasgeletara eraman nahi dituen jarduera bat gauzatzeko**

**Mungia, 2023ko martxoaren 23an.** Frantziako Tourreko ekitaldi tradizional eta ezezagunetako bat da *'La Dictée du Tour'*, ikastetxeetan egiten den ekitaldia. Frantziako Tourrarekin eta haren ondarearekin lotutako testu baten diktaketa bat egiten datza, gazteen artean Frantziako lasterketaren ospea helaraztea eta sustatzea du helburu, ingurumenarekiko errespetua sustatzearekin batera. Oraingo honetan, Mungiako Legarda eskola publikoa izan da aurtengo diktaketaren anfitrioi.

Honela, **Grand Départ Pays Basque 2023**ren baitako ekitaldietan, Mungiako Legarda eskola publikoak **Christian Prudhomme** Frantziako Tourreko zuzendari nagusiaren bisita hartu du. **Jokin Bildarratz** Hezkuntza sailburua eta **Eneritz Iturriaga** Emakumezkoen Frantziako Tourrean (frantsesez eta ofizialki: Grande Boucle Féminine Internationale) 10 partaidetza dituen txirrindulari profesional ohia, **Ager Izagirre**, Mungiako alkatea eta **Alaitz Erkoreka**, Mungia Udaleko I. alkateordea, izan dira bisitaren anfitrionak, eta ikasleek goiz hezitzaile, ludiko eta dibertigarria izan dute. Batzuek diktaketa egiten zuten bitartean, beste batzuek txirrindularitzarekin lotutako hainbat jarduera osatu dituzte ikastetxeko patioan. Tourreko lasterketa zuzendariaren SKODA auto gorri deigarria ere mirestu ahal izan dute, uztailaren 1, 2 eta 3an gure errepideetan zehar zirkulatzen ikusiko duten ibilgailua.